

Pastoralaz

Eskerrak: Euskaltzandia, Euskararen Erakunde Publikoa, Andres Urrutia, euskaltzain burua, Battittu Coyos euskalzaina, Jean-Louis Davant euskalzaina.

Beharrezkoa zen pastoralaz agert ledin lan bat. Xiberoak, bai Euskal Herri osoak eta beste güzietan jakitâteari lotürik direnek Euskalzaindia eskert dezakee.

Lan hontan, pastoralari doakon ikerketa eta gogozka zonbait hartü nahi üken dü.

Arren, aipatzen dü zer den pasterala. Hitz horren arabera, aisa har genezake oker, ustez eta hor ari direla artzainak eta artzaintsak, latinetik jiten den pastor hitzak artzain erran nahi beiti.

Bestalde, erakusten dü antzerki kente hau zahar dela, zahartarzüñ herexak badütüala, pastoral izkiribatüak düala lau mente baizik agertzen ez badira ere. Ikerzaleek hanitxetan dioe bestetarik horra zaigüla. Ez dezakee asma gurea dela eta beti erranez ari dira besteer hartü dügüla, galtatzen deigüen bezala: "Bena züek, euskaldünak, nontik horra zidee?"

Heben eginik denaren üdüriko zerbait badü bai ehün bat urte nonbait ez dela lantürik izan. Herellek züan agerrarazi.

Ez da pastoral bakotxa ikertürik, bena bai pasterala bera antzerki mota bezala. Beraz, aipatzen da zer den, nontik dügün, nola sortzen den herrian emaiteko asmüa, nola emanaldia antolatürik den, zer diren arauak eta beharrezkoa dela horien etxekitzea.

Idazkiak badütü bere berezgoak, historia bat, bizitze bat, trajeria bat eskentzen düana, hiru zatitan: lehen perediküa, jelkaldiak eta azken perediküa. Ahozka berezi batetan mintzatzen dira arizaleak. Bakotxa ari da, pastorean düan bere izatearen arabera. Orozgain bi kente dira gorriak eta urdinak, zelükoak eta ifemükoak, hau da gaixtoak eta honak. Hor sartzen dira ere kantoreak, müsika, dantzak.

Erranik da nontik dügün: eta düdarik gabe, gure jakitatean hoinarritürik da, beste jeieki batean, hala nola maskaradak. Hein bat barnatik erakutsirik da nola Herelle gogor izan zen eta nola ere oker zoala. Gük diogü gurea dela eta agertzen dügü zertan, bere izate osoan. Ez da atzokoa, bena bai aspaldikoa.

Gero ikusiko düzüe nola pastorala idatzirik den. Erran nahi beita, badütü bere arauak, bereziak, eta honartü eta etxekei behar düe. Edirenen düütüzüe ere xehetarzünak emanaldiari бүрүз, antzokiaz eta antoladüra esbardinez. Hein bat lüzaz antzezlana herrokatzen dü, ahal bezala marraztü dütüdan itxüreki.

Bestalde, gure pastoralak badütü bere ezagügarriak eta erranahi bereziak bai arizaleetan bai eginetan bai eta güzzetan, dantza, müsika, ebilaldi eta beste.

Prefosta taigabe jiten zaigü galtoa: "Eta gero?" Azkarki diot hori lotürük dela gure mintzoari eta izateari. Gure nortarzüna eta gure eüskara bizi direno, -eta nik, neke hanitx ikusirik ere, gogoan azkarki sartürük dü biziko direla-, gure jeiek eta horietan pastoralek aitzina eginen düe.

Oro har, Xiberoko aberastarzün horrez, libürü hori oso baikor elkitzen da.

Pastoral hitza. Arizaleak artzain eta artazaintsak. Gure pastoralean ez. Zernahi arizale bada. Antzerki kente berezi bat da.

Herri emanaldi bat da: arizaleak.../ Antoladürak: herri batek emaiten, güne, jauntsi

Borroka bat da, honaren eta gaixtoaren artean. Hona agertzen da irabazle. Horien sahetsean aingürüak eta Satanak. Bakoitxak badü bere berezgoa, mintzoan, ebilaldian, jauntsian. Pastoral erritu bat bezala jokutzen da.

Idazkiak ere badü bere gisa berezia: lehen perediküa, jelkaldiak, azken perediküa. Bertsetetan ere agertzen da: bertsetak badü bi bertsü, orai ontsala 16 zankoeki, bena ahozkatzen dz lau alditan, zortzi zankotako bakoitxa eta ahaide berezi batetan.

Horiek oroek erakusten deigüe pastorala berezi dela, ez dela edozoinahi antzerki bat üdüri.

Lan hortan pastoralaren arauak aipatzen düüt eta prefosta etxekei behar düela.

Pastoral titülüa : bizitze, historia, trajeria

Pastoral nontik? Erroma? Grezia? Frantziako misterioak? Heben azkarki jorrazten düüt Hérelleren erranak.

Eüropa güzian. Gure berezgoa eta jakitatea badügu. Hor sartzen dira: pastorala, maskaradak, maskak, astolasterrak, tzintzarrotsak, txikitoak eta orozgain gure mintzo paragabekoa.

Erraiten düt non emanik den, antzezkideak, arizaleak, abioak, emanaldia.

Xehetarzün hanitkeki aipatzen düt antzezlana eta errejentaren egitekoa.

Erranahiak: borroka, hona eta gaixtoa, antzokia: bortak, xiloa, eskelera, musikaren egongia, antzezkideak bi zatitan

Gaüzak: jauntsiak eta koloreak, makila, ezpata, gerrikoa, askümantxoak, maskak, koha, azotea, kakoa, müsika tresnak.

Jelkaldietzaz xehetarzünak.

Eginak/ eбилtea, üngürükak, güdüa, makilen erabilka. Dantzen eragina, Müsikaren eragina.

Eüskal izatea: Jinkoa ez da agertzen, herrian bezala, Makila. Üngürükak: harrespilak, ilherrietako harriak, olasariak, bordaltiak, dantzak, elizebilbideak.

Pastorala gero?

Junes Casenave-Harigile